

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 646/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Pelayo Serrano Viteri aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua uztea**

Martxoaren 16ko Foru Gobernu Kontseiluaren 122/2021 Erabakiaren bidez, Pelayo Serrano Viteri behin-behineko aholkulari tekniko lanpostua betetzeko izendatu zen (kodea: 1122.008).

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, Foru Aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko lanpostuak beteko dituztenak izendatzea eta kargutik kentzea.

Diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Pelayo Serrano Viteri aholkularitza berezia eskaintzeko behin-behineko langile kargutik kentzea, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2021ko azaroaren 3tik aurrera izango du eragina.

Hirugarren. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*